

GIZA TALDEA

Hautaketa- eta promozio-prozesuen bitartez, nahi dugu langile egokienak erakundeak sortutako lanpostuetan aritzea, gaitasun profesional eta pertsonalaren printzipioak errespetatuz, eta, halaber, aukera-berdintasuna eta kanpo- eta barne-arauen exijentziak, prozesu bakoitzean eraginkortasuna eta efizientzia lortu nahian.

Enpresako pertsona guzti-guztiek daukate aukera garapen profesional handiagoa eta erantzukizun berriak dakartzaten beste lanpostu batzuetan aritzeko, betetzeko lanpostuak enpresak kontratatutako langileei, kontratu mugagabea dutenei, eskaintzen baitzaizkie lehenbizi. Lanpostua barneko jendearekin ez bada betetzen edo betebeharrak betetzen dituen langilerik ez badago, eskaintza kanpora zabaltzen da.

2023an, 40 deialdi egin dira: 18 barnekoak eta 22 kanpokoak. Barneko deialdiei dagokienez, 2 lekualdatzeei egokitu zaizkie eta 16 barne-promozioei. Bi faseetan iragarritako 109 plazetatik, guztira, 60 plaza bete dira: 11 barneko fasean eta 49 kanpoko fasean. Bete gabe 46 lanpostu gelditzen dira, eta 2024an zehar kudeatuko dira. Kanpoko prozesuen bidez 1.537 hautagaitzari egin zaie arreta, eta 56 pertsonari, barnekoen bidez.

Langileen hautaketa- eta promozio-adierazleak

	2019	2020	2021	2022	2023
Barne-promozioiko prozesuen %, hautaketa-prozesu guztien gainean	60,00	63,64	63,64	51,35	45,00
Promozionatutako langileen %, hautatutako langile guztien gainean	43,48	14,29	20,00	25,00	38,10
Promozionatutako langileen %, plantillaren batez bestekoaren gainean	2,02	0,21	1,24	0,82	1,48